IKASLAN

INSTITUTO ESPECIFICO DE FORMACION PROFESIONAL SUPERIOR
GOI-MAILAKO LANBIDE HEZIKETAKO BERARIAZKO INSTITUTUA

**DON BOSCO**

| HSAOL BATXILERGOAK | ERDI-MAILAKO HEZIKETARAKO ZIKLOAK | GOI-MAILAKO HEZIKETARAKO ZIKLOAK |
|---|---|---|
| Batxilergo teknologikoa<br>Osasun eta Natur Zientzien Batxilergoa<br>A eta D ereduak | Soldadura eta Galdaragintza<br>Laborategia<br>Karrozeria<br>Ibilgailuen Elektromekanika<br>Hotz klimatizazio eta bero ekoizpen instalazioen muntaia eta mantenimendua | Produktu Elektronikoen garapena<br>Analisi eta Kontrola<br>Ekipo Industrialen mantenimendua<br>Metal eraikuntzak<br>Prozesu eta eraikin instalazioetako muntaia eta mantenimendua |

San Markoserako errepidea, z/g
Tfnoa. 943-51.04.50 / 4 / 8
Web site:http//www.donbosco.hezitek.net

Apdo. 101 20100 ERRENTERIA
Faxa. 943-52.92..20
E-mail:iefps@donbosco.hezitek.net

LANGAIrekin lan egiten duen Zentroa
LAN SAILAREN Zentro tutelatua
LANERAKO FORMAKUNTZAren emailea
JARRAIEKO FORMAKUNTZAren emailea (HOBETUZ)
AUTODESKeko ATC (Training Center)

Pasaiako Portua

Pasaiako Portuko Agintaritza

Tf. 943.35.18.44
Fax 943.35.25.80
E-mail:ppasajes@sarenet.es
www.puertopasajes.net

**Gure eskualdean gora Pasaiako Portuarekin lotuta daude.**
**Honen eguneroko mugimendua, hain zuzen, Oarsoaldeako zati handiaren bultzatzailea da.**

Elkarrizketa: 'Pasaiako hizkera' liburuaren egileekin solasean

# Kanpo portua
## Egitasmoa eta iritziak



Pasaiako herri aldizkaria

bran ka

04 zenb. 2000ko apirila

# branka

**Pasaiako herri aldizkaria**

2000KO APIRILA / 04 ZENB.

Argitartzailea:
Arnasa Euskara Elkartea
Eskalantegi 38, behea.
Pasaia. 20110
Tel: 943 341 045
Lege Gordailua:SS-42/2000
ISSN:1576-0138
Inprimategia:
Antza

Tirada:
2500
Branka aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**Koordinatzaileak**
Olatz Mitxelena eta Urko Etxebeste
**Publizista**
Larraitz Rubio
**Hizkuntza arduraduna**
Izaskun Aldezabal
**Kolaboratzaileak**
Jon Vicente, Luis Mari Laboa, Olatz Sistiaga, Imanol Carballo,Jon Goikoetxea, Birjinia Ortega, Ixiar Goienetxea, Juan Olalde, Izaskun Aldezabal, Gorka Muñoz, Markos Sistiaga, Idoia Vicente, Patxi Porta, Aintzane Taberna, Erkuden Muguruza, Edurne Urkiola, David Zapirain, Maripi Etxarri, Patxi Otxoa, Bernar Arratibel, Asier Vilas, Xabi Etxaniz eta Patxi Berdote.

AZALA: Lander Garro


## harpidetza-txartela

***BRANKA aldizkaria hilero dohainik zure etxeko postontzian jaso nahi baduzu, bete ezazu beheko aldean duzun harpidetza txartela, eta bidal iezaguzu behean aipatzen den helbidera.***

Izen-deiturak.....

Helbidea .....

Herria .....Tel.....

Herrialdea.....

**Bidaltzeko**

ARNASA EUSKARA ELKARTEA
"BRANKA aldizkaria"
ESKALANTEGI KALEA 38, BEHEA -
20110 PASAIA (Gipuzkoa)
Tel.:943 34 10 45

**Aldizkari honek Pasaiako udalaren laguntza jaso du**

# aurkezpena

## Brankazaleei

Pasa den martxoaren 24an Arnasa Euskara Elkarteak jada ohikoa bihurtzen ari den bertso afaria antolatu zuen. Jon Maiak, Angel Mari Peñagarikanok, eta Jokin Sorozabalek giro aparta sortu zuten bildutako bertsozaleen artean. Bazter guztiak astindu ondoren, eta saioari amaiera emateko honako bertso hau eskaini zuten Pasaiako euskaltzale guztiontzat:

Esan digute beste bertso bat
ta bukatzeko jolasa
espero degu ez izatea
hain despedida eskasa
zuen euskara elkarte horri
eskerrak a ze gaupasa
zuen asmoei aurrera eutsiz
bidea dago erreza
Brankan aurrera zuzen begira
ta sakon hartu Arnasa.

**LABURREAN**



6-13. BARRUTIZ BARRUTI

14. ERREPORTAJEA
Kanpo portuaren egitasmoa eztabaidagai

18. KALE-INKESTA
Zein asmo duzu Aste Santurako?

20. KIROLAK

21. PASAIAKO SARRASKIA

22. ELKARRIZKETA
Gure herriko hizkera liburu bilakaturik

25. KULTUR AGENDA



kutxa gizarte-ekintza obra social

## telefono interesgarriak

**UDAL ZERBITZUAK**
**Gizarte zerbitzuak:**
943391187
**Kultura, euskara eta gazteria:**
943400108
**Idazkaritza:**
943344140
**Dirubilketa:**
943522150/4
**Kontuhartzailetza:**
943344157
**Diruzaintza:**
943344153
**Hirigintza:**
943344224
**Udaltzaingoa:**
943400000
**Obrak eta zerbitzuak:**
943393693
**Antxoko Udal Liburutegia:**
943515737
**Trintxerpeko Udal Liburutegia:**
943401053
**San Pedroko Udal Liburutegia:**
943399348
**Pasaia Musikal Udal Fundazioa:**
943396055

**LARRIALDIAK**
**DYA:**
943521557
**Gurutze Gorria:**
943511605

**BAILARAKO EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEAK**
**Lau haizetera:**
943341048
**Orratx:**
943519144
**Branka:**
943341045
**Oarso Telebista:**
943493818/19
**Oiartzun Irratia:**
943493711

## internetеko helbideak

**EUSKARA**
**Elhuyar:**
www.elhuyar.com
**Argia:**
www.argia.com
**UZEI:**
www.uzei.com
**IVAP/HAEE:**
www.ivap.com
**UPV/EHU**
www.ehu.es
**Udako Euskal Unibertsitatea**
www.ueu.org
**Euskal Herrian euskaraz**
http://www.geocities.com/capitolHill/7012/

**EUSKARA TALDEAK**
**Gerdiaga elkartea**
http://www.eusnet.org/partaide/gerediaga/home.htm
**Bagera**
http://www.jalgi.com/topagunea/bagera

**BILATZAILEAK**
www.jalgi.com
www.eibar.org/aurki

**INSTITUZIOAK**
**Arabako foru aldundia**
http://www.alava.net
**Bizkaiko foru aldundia**
http://www.bizkaia.net
**Gipuzkoako foru aldundia**
http://www.gipuzkoa.net
**Nafarroako foru aldundia**
http://www.cfnavarra.es
**Eusko Jaurlaritza**
http://euskadi.net
**BOPV**
http://www.euskadi.net/bopv
**Emakunde**
http://www.emakunde.es

## Goardiako farmaziak

**Apirilaren 8an: MªTeresa Vega Gure Zumardia 27. Pasai Antxo. Telefonoa: 943 512349**
**Apirilaren 10an: Ana Isabel Sancho. Blas de Lezo 11. Pasai Antxo. Telefonoa: 943 510545**
**Apirilaren 15an: Ignacio Ormazabal. Eskalantegi 32. Pasai Antxo. Telefonoa: 943 510781**
**Apirilaren 22an: MªLourdes Martinez Lagos. San Juan kalea 22. Pasaia Donibane. Telefonoa: 943 514645**
**Ana Isabel Sancho. Blas de Lezo 11. Pasai Antxo. Telefonoa: 943 510545**
**Apirilaren 27an: Ignacio Ormazabal. Eskalantegi 32. Pasai Antxo. Telefonoa: 943 510781**

## besteak

**Maiatzan, zehazten diren egun hauetan jasoko dira altzari zaharrak:**

Trintxerpen, maiatzaren 2an.
San Pedron, maiatzaren 3an.
Pasai Antxon, maiatzaren 4an.
Donibanen, maiatzaren 7an.

**JAIOTZAK, HERIOTZAK ETA EZKONTZAK**

Martxoan, 7 pasaiatar jaio dira, 2 pertsona hil dira, eta 3 ezkontza ospatu dira.

# ez zaitez moztu

## Jaizkibel dragauntzia eta espaziountziak

Azken bolada honetan, San Pedrotik Antxora asteartero joan behar dut. Eguraldiak gure alde jotzen duenez (ez nekazaritzaren alde, ordea) eta autobusaren txartelaren salneurria euli kaka ez denez, oinez egin ohi dut bi barruti hauek banatzen dituen bide zikin eta mehar hori. Errepidearen paretik doana, alegia.
Joan den asteartean, Buenabista gainera iristear nengoenean, porturantz bideratu nituen begiak; errepidetik zetorren kamioiak horrela bultzatu ninduen; kamioiek barreiatzen duten hautsa eta nire lentilak ez dira inoiz oso ondo moldatu elkarrekin. Baina tira, portuan ikusi nituen bi gauzek burutik kendu zidaten kontu hori.
Alde batetik, langile talde bat metalezko egitura berri bat osatzen ikusi nuen. Berehala etorri zitzaidan burura telebistan ikusitako berria: "Pasaiako portuan espaziuntzi baterako zama-orga bat eraikitzen ari dira". Bai modernoak garela herri honetan –esan nion neure buruari- aurki izango dugu zeruan herriko seme bat, nahiz eta altzairuzkoa izan. Hemendik aurrera peto-peto behatuko ditut Meteosat sateliteak bidaltzen dizkigun irudiak...
Hala ere, aldamenean ikusi nuenak nire harrotasunetik berreskuratu ninduen. Ondoko plataforman Jaizkibel dragauntziko aztarnak pilatzen ziren: untzi-kabina eta errosarioa, hain zuzen ere. Untziaren hondarrek merezia ez duten etorkizun gabeko geroa itxoiten zuten, herdoilduak, ahaztuak eta beraien kaskotik aldenduak. Jaizkibel dragauntzia 1934 eta 1984 artean Pasaiako badian aritu zen hondotik hamaika sedimentu tona ateratzen. 1992 urtean kulturaren ondarea izendatu zuten eta honi esker deseginketatik libratu zen. Ahanzturak, berriz, gogor eraso du.
Etorkizunari begiratu behar diogula uste dut, are gehiago, buru-belarri lan egin behar dugu herri hau aurrera atera dadin. Baina horrek ez du esan nahi iragana ahantzi behar dugunik. Bukatzear dagoen mende honetako garai disdiratsuenaren ikusle izan da Jaizkibel dragauntzia, eta pairatzen ari den egoerari irtenbide duina bilatu behar zaio. Beraz, erakundeei dagokie Pasaiako historiaren lerro hau salbatzea, etorri behar diren belaunaldiei berritua eskaintzeko, beharbada, itsas-museo bihurturik...

**Jose Mª Hernandez**

## Breizh eta San Juango pabak

Frantziako estatuak kaietako zutikako makilak babesten ditu.
Bretainiarrek bizi diren lurraldeari Breizh esaten diote. Askotan euskaldunekin parekatu izan badituzte ere guretzat oso ezezagunak dira. Beraietako askok, berriz, gure zenbait gauza ezagutu eta eredu bezala dituzte. Guk ere badudu zer ikasi beraietaz.
Mendeetan soroak lantzeaz gain, itsasoari begira egon dira; hau jakinik, gure antza daukatela ikus genezake. Gainera, itsaso berberan aritu gara denok arrain berak arrantzatzen eta baita merkatari lanetan ere.
Baina garaiak aldatu direnean, belaunaldiz belaunaldi pasatako itsas tradizioa guk baino askoz ere hobeto jaso dute eta jasotzen dute. Hau da, antzinako txintxorro, txalupa, itsasontzi eta beste zenbait tresna gordetzeaz gain, berrerabiltzen dituzte; guk, berriz,...
Tokiekin zailagoa den arren, lan bera egiten dute.Herri bat berreskuratzea garestia da, bainan okerragoa guztiz berraldatuta dagoenean. San Juan konpondu eta edertzea errazagoa izango da zenbat eta berezko elementu gehiago eduki. Berezkoa kendu eta modako petatxoak jarriko baldin bagenizkio, berreskuraketa geroz eta zailagoa izango litzateke.



Frantziako estatuan geratzen diren paba bakarrenetakoak Breizh-en daude, Jaizkibelen antzeko mendi bateko kalan. Han, lurraldeko iparraldean, Plouh izeneko hondartzatxo batean. Non kokatua dauden ikusiz gero, legez babestuta daudela jakitea sinesgaitza egiten da. Aldiz, guk mutur aurrean ditugu, herriko bereizgarrietako bat dira, eta azkeneko BRANKAn azaldutako proiektuaren arabera, baztertzeko edo kentzeko planak egiten ditugu.
Bada garaia Donibane berreskuratzeko, bertakoentzat bizileku erosoa, eta kanpoko zein denontzako polita izateaz gain, herritxo benetan berezia izateko. Breizh, kotxez hamar ordutan dagoen eredua da, aitzakia galanta bertara joanda ikusi eta ikasteko.

**Joseba Antxustegietxarte.**

# donibane

## Berriztapen - egitasmo berriak

Herriaren eta bizilagun guztion onurako izango diren hirigintza-aldaketa garrantzitsuak aurreikusten ditu Udal hiri berriztapen egitasmoak.
Nagusiki hiru zonaldeen berriztapena azpimarratzen dira egitasmoan.
Lehenik eta behin, Santiago plaza aurreikusten da. Orrialde hauetan aurreratu genizuen bezala, Peña Gantxegi arkitektuaren lantaldeak egindako diseinuaren proiektuari jarraiki, plazak itxura-aldaketa berezia izango du. Guztira berrikuntzak 100 milioiko aurrekontua izango du eta, ziurrenik, udara amaierako izango dugu ikusgai plaza berria.
Honekin batera, puntaseko pasealekua berritzea ere jasotzen du hirigintza egitasmoak. Pasealekuan bertan izaten diren ur-jauzien biderapen egokia , argiteri berria ezartzea eta, oro har, pasealeku osoaren zoladura dira aurrera egingo diren berriztapen nagusiak.
Azkenik, Meipin eraikitzen ari diren etxebizitzak amaitu ostean, zonalde honek izango duen itxura -aldaketarekin jarraiki , frontorainoko bide osoak urbanizazio-aldaketa garrantzitsua izango du; espaloi berriak, argiteri egokia , hiri-altzairu berriak, besteak beste.
Berriztepen hauek guztiak hiru urteetan zehar burutzea aurreikusten du Udalak. Halaber, egitasmoak herrian beste hainbat berrikuntza egitea jasotzen du , eta hauen inguruko xehetasun gehiago aldizkariaren hurrengo aleetan izango duzue.

Luis Mª Laboa

## Antxua frexkue!!

Neguaren amaierak antxuaren kanpainari hasiera eman dio. Donibanen, dagoeneko, ez da baxurazko untzi bakar bat ere geratzen. Ez da, beraz, Donibaneko untzirik itsasoratuko, antxua, txitxarrua edo berdelaren bila. Ez dugu ikusiko, "eskaleriletan", gure untziek, marinelak hartu eta portua uzteko orduan, hainbat eta hainbatetan, errepikatutako maniobrarik.
Baina, herrian untzirik ez badugu ere, marinelak baditugu. Negua lehorrean pasa ondoren, indar berriturik ekiten diote kanpainari.
Berez, hain gogorra den lanbide honek ez ditu, ez, momenturik goxoenak bizi; alde batetik, itsasoa bera badirudi nekatu xamarra dagoela eta beste aldetik, inguruko herrialdeetako arrantzaleekin alderatuz gero, hemengoak baldintza okerragoetan ez ote dauden susmoa dut.
Beraz, lehen aipatutako indar berritu horiek, behar beharrezkoak izango dituzte gure marinelek arraina portura ekarri nahi badute. Zorte on guztiei!!

## Jai-batzordea

Santiago plazako obrei hasiera emango diotela eta, aurreikusten da ekaineko jaiak ezin izango direla plazan egin, beraz, joan den martxoaren 14an bigarren aldiz bildu da Jai-Batzordea alternatibak bilatzeko; aukera gehiegirik ez badago ere, erabaki zuten San Juan bezperako Aurresku Herrikoia Meipiko plazan egitea.
Gaztetxekoek ere antolatzen dituzten ekintzak Gaztetxean bertan izango direla esan zuten eta Gestorak antolatzen duen Mus - Txapelketa Bonantzan izaten jarraituko du.
Azaldu eta parte hartu ezazu datozen jai-batzordeetan!

## Kanpoko portuaren aurkako bilera

Pasai Donibaneko Victor Hugo Etxean Pasaiako kanpoko portuaren aurkako bilera egin zen martxoaren 18an. Bertara, eskualdeko pertsona eta talde ezberdinak agertu ziren 50 pertsona inguru bilduz. Bilera honetan, egitasmo honek eragingo dituen kalte eta txikizio guztien azalpenarekin batera kanpoko portuaren eraikuntzaren aurkako batzorde bat sortzearen beharra plazaratu zen. Herrietan informazioa zabaltzea eta eskualdeko agente ekonomiko, sozial eta politikoekin bilerak egitea proposatu ziren hurrengo pausu bezala.

# herriko bazterrak





## Bonantzako Lintxo ateko Itsasontziak

Jakina den bezala, Lintxo ate sendo horretan mota ezberdinetako itsasontziak agertzen zaizkigu tailatuta. Taila edo labanarekin egindako marrazki hauek XVIII eta XIX. mendekoak ditugu. Dirudienez, eguraldi txarreko egunetan arrantzale edo marinelak hemen egoten ziren eguraldia hobetzearen zain. Marrazkiak, antza, arrantzale eta marinelek egiten omen zituzten bidai on orogatik eskerrak emanteko edo ezbeharrik gabeko itsasoratze bat eskatzeko. Denera 13 itsasontzi aurki daitezke Lintxon: fragata, goleta eta faluak, beste moten artean.

## Martxoaren 12ko hauteskundeen emaitzak

| | |
|---|---|
| EA | 232 |
| EAJ-PNV | 230 |
| PSE-EE | 116 |
| EB | 18 |
| PP | 142 |
| BESTEAK | 4 |
| ABSTENTZIOA | 1436 |

# pasadizoa

## Aldatu dena eta aldatu ez dena

Azken urte hauetan inguruko herrietan tabernak eta, batik bat, sagardotegiak ontto bezala ugaritu direla maiz entzuten da. Dena den, garai batean Sanjuango "azpiegitura" ez dakit apartekoa baina, behintzat, ugaria izan zela esango nuke.

Baina, honek azalpen txiki bat behar du.

Sanjuango orduko biztanlegoa zein zen jakitea interesgarria litzateke, baina, kontuan hartuz Donibane kaleari "calle única" deitzen zitzaiola (besterik ez zegoelako), eta herri guztia kale batean bizi zela, oraingoa baino askozaz txikiagoa zela pentsa daiteke.

Hala eta guztiz ere, eta gaurko gazteentzat harrigarria bada ere, herrikoek 9 sagardotegi ezagutu dituzte Donibanen. Horrela, herriaren hasieran, Bizkaia auzoan "Benantxi"ren sagardoa probatzen hasiz gero, herriko beste puntaraino Sistiagatarren sagardotegian (gaur Errekatxu dena) eta tartean beste zazpi sagardotegietatik (Victor Hugon, Zinkuenta errekan, Kofradian...) dastatzeko aukera zegoen.

Dena den, ez zen hemen bukatzen "azpiegitura". Sagardotegiez gain, tabernak eta jatetxeak ere egon baitziren.

Aukera polita herri txiki baterako!!

Beraz, azken urte hauetan herriaren ezaugarriak dexente aldatu direla esango nuke.

Aldatu ez dena, tabernetatik edo sagardotegietatik ateratzeko modua. Esan didatenez, orduan, orain bezala, "RUMBO AL CAIRO" ateratzen omen ziren.

Ez nau harritzen!!

## Musikaren sabeletik

***Zortzi urte pasa dira Mogambo aretoak ateak zabaldu zituenetik. Urte hauetan zehar ehunka kontzertu antolatu dituzte Mogamboko lagunek, Donostialdeko kontzertu aretorik ezagunena bihurtuz. Areto honen historia, istorioak eta helburuak ezagutzeko bildu ginen "Fres"-ekin eta Ignaciorekin.***

**Nola eta noiz sortu zen Mogambo kontzertu areto bihurtzeko ideia?**

Mogambo ireki baino lehen Buenavistan antolatzen genituen kontzertuak, baina Soziedad Alkoholika taldeko kontzertu baten ondorioz, Donostiako Udaletxeak debekatu egin zigun hor kontzertuak egitea. Orduan hasi ginen udaletxearekin hitz egiten soluziore bat lortzeko. Eta udala bera izan zen konponbide hori asmatu zuena: Mogambo aretoa ez zen erabiltzen, eta leku aproposena ematen zuen kontzertuak eskaintzeko. Honela hasi ginen berriro 1992an, Nuevo Catecismo Católico eta Back Sliders taldeek eskainitako kontzertuarekin. Hasieran, hilabetean behin edo bitan bakarrik antolatu ahal genituen kontzertuak, baina gero kopuru hori handitu egin zen.

**Zein izan zen arrakasta handien lortu zuen kontzertua?**

Dudarik gabe Albert Pla-k eskaini zuena, AHTren aurkako kontzertu batean. Hau ez ezik, Manolo Kabezabolok eta Ratos de Porao taldeek eskaini zituztenak ere oso arrakastatsuak izan ziren.

**Nola jartzen zarete harremanetan taldeekin?**

Gehienetan zuzenean egiten ditugu harremanak. Taldeen artean oso harreman onak sortzen dira, eta honek errazten du gure lana. Bestela, taldeek idazten edo deitzen digute, eta beste batzuetan promotoreak jartzen dira harremanetan gurekin, bereziki talde atzerritarrak direnean.

**Zein da zuen ustez azken bolada honetan gehien entzuten ari den musika?**

Buenavista oso gertu dugunez, Punk-rocka da hemen gehien entzuten dena, hor jotzen duten talde gehienek musika-mota hori egiten baitute. Baina azken aldiotan hip-hop eta ska maiz entzuten da.

**Nabaritu al da kontzertuetara etortzen den jendearen kopurua murriztu egin dela Tunk! eta Jam aretoek ateak ireki zituztenetik?**

Ez. Gainera, guztiz ezberdinak dira. Areto horien helburua da dirua lortzea, negozio bat dira. Gu dirua ez galtzearekin konformatzen gara. Guk mugitzen ditugun taldeak ez dira oso ezagunak normalean, eta interesatzen zaiguna da, batez ere, talde horien musika zabaltzea. Nolabait esateko alternatiboagoak gara, eta hori publikoarekiko eta taldeekiko dugun jarreran ikusten da: saiatzen gara sarrerak mila pezetatik gora ez jartzen, eta taldeek irabazten dute sarreran lortzen dutena, hori baita, gure ustez, merezi dutena.

**Asko aldatu al da gaurko egoera, musikari dagokionez, 80ko hamarkadarekin konparatuta?**

Bai, asko. Garai hartan taldeek beste jarrera bat zuten, berdin zitzaien gutxiago kobratzea edota dohainik jotzea. Orain edonork eskatzen dizu diru asko jotzeagatik. Berdin zaie non jotzen duten eta zertarako den kontzertua. Badaude horrela ez diren taldeak, baina gehienek bakarrik diruaz hitz egin nahi dute.

**Zuen ustez, Mogambo bezalako aretoak izango dira gaztetxeen oinordekoak?**

Guretzat Mogambo bera da gaztetxe bat. Badakigu gaztetxe bat kontzertu areto bat baino gehiago dela, baina hemen, gaztetxeetan bezala, dena erabakitzen da asanblada irekian, dena hitz egiten da denon artean. Gainera harreman handia dugu inguruko gaztetxeekin, Andoainekoarekin edo Zarautzekoarekin, esate baterako.

**Asanblada honetan edonork har dezake parte?**

Bai. Batzuetan etortzen da norbait eta proposatzen du kontzertu bat egitea. Asanblada horretan eztabaidatzen da proposamena eta onartzen bada, aurrera. Orain arte ez diogu inori ezetz esan. Eskatzen dugun gauza bakarra, kontzertu horren helburua irabazpenik lortzea ez izatea da.

**Kontzertuez gain, beste motatako ekintzak egiten al dira Mogambon?**

Bai, noizean behin antzerkiak antolatu izan dira. Behin, estatu mailan egiten ari zen bira bat ere ekarri genuen. Baina gehienetan musika arlora jotzen dugu, hori delako guri gehien gustatzen zaiguna. Hala ere, musikari dagokionez, saiatzen gara eskaintza zabaltzen, eta hemen entzun ahal izan da ia edozein motatako musika.

**Bukatzeko, inoiz izan al duzue arazorik bizilagunekin?**

Ez, arazo seriorik ez. Saiatzen gara lokalaren eta auzoaren irudia zaintzen. Gainera gaur egun jendea ez da hain erraz beldurtzen, eta hasi da onartzen ilea tintatuta edota luzea izateak ez duela arriskutsua zarenik esan nahi. Izan ere, asko aldatu da kontzertuetara etortzen den jendea: lehen etortzen ez zen jendea gero eta gehiago hurbiltzen ari da.

illunbe BURDINDEGIA FERRETERIA
jaizkibel, 4
euskadi etorbidea, 53
tel.-fax 943 39 71 54
20110 TRINTXERPE

## Agur ihauteriei

Bai, halaxe da, aurtengo Trintxerpeko ihauteriei agurra esan behar izan diegu. Hiru egun baino ez dira izan, baina ondo asko aprobetxatutakoak. Hiru egun, non umorea nagusitu den gure herri honetan. Hiru egun, non trintxerpetarrok geure buruari egin diogun iseka, gelditu ere egin gabe. Hiru egun, ederki gozatutakoak. Baina jada joan dira... eta orain? Lasai, laster Karmenak hemen izango ditugu eta.

## Akatsak zuzentzen

Azkeneko zenbakian, azken orrialdean jaso genuen argazkia Trintxerpeko euskal ezkontza baten argazkia zela genion arren, oker geunden. Izan ere, argazkia 1952an ospatutako batailoarena baitzen. Alkatesaren abizenik ez genuen aipatu, eta Luisa Lorenzo zela esan behar dugu orain. Besterik gabe, barkamena eskatzen dizuegu irakurle guztiei.

## polizoiaren galderak

Nor izan zen 2.000 urtean jaiotako lehenengo haurra x tokian? Horiek ziren, horiek, komeriak, alajaina!! Imajina dezakegu 12 mahatsak irentsi berria den kazetari gizarajoa, ospital guztietara deika eta deika, argazkiak lekutxoa egina baitauka hurrengo eguneko egunkariko lehenengo orrialdean... eta 1.999ko abenduaren 31n, gaueko 11:43an jaiotako haurrak ez al du merezi lekutxorik egunkarian? Ez jauna, hemezortzi minutu beranduago jaiotzea zeukan, bai horixe!! Eta galdera zera da: ez batak ez besteak ez dute pundamentuzko ezer egin egunkarian ateratzeko, ados, baina bien artean eta berezitasunen bat aurkitze aldera, ez al da 1999ko azkena 2000ko lehenengoa baina garrantzitsuagoa? Azken batean, 2.000. urtean bera bezalako haur piloa jaioko da, baina 1.999.ean jaiotako azkena bezalakorik ez da berriz jaioko...

## Martxoaren 12ko hauteskundeen emaitzak

| | |
|---|---|
| EA | 212 |
| EAJ-PNV | 393 |
| PSE-EE | 920 |
| EB | 228 |
| PP | 804 |
| BESTEAK | 49 |
| ABSTENTZIOA | 2589 |

TESTUAK: ERKUDEN MUGURUZA / BERNAR ARRATIBEL

# san pedro

## "Cine Gran Sol", igandero eta ordaindu gabe

***Igandero kalitatezko zine-emanaldiak eskaintzeaz gain, "A Pabela Productions" taldeak zinea ere egiten badakiela erakutsi berri du pasaiatar guztion artean. Pasa den hilabetean, San Pedroko Udal Aretoan plazaratu zituzten "Andre 666" eta "La apuesta", beraien azken produkzioak. Talde honen nondik norakoak jakin ahal izateko, bertako partaide batzuekin solasalditxo bat izan dugu.***

**Nola bururatu zitzaizuen zine talde bat antolatzea?**

Hasiera batean, San Pedroko Alkateordetzako lokal batean lagun batzuk bildu ginen. Han, gure historioak egiten genituen, rol jokoak etab..., gutako batzuei zinearen grina piztu zitzaigun arte. Horrela, 96an bideo talde bat osatzea erabaki genuen, batetik, San Pedron astero eta dohainik funtzionatuko zuen Zineklub bat osatzeko, eta bestetik, gure bideo-ekoizpen propioak sortu ahal izateko. Eta horretan gaude gaur egun ere; Zinekluba antolatzen eta programazioa burutzen, eta bestaldetik, gure bideo-produkzio etxe eta erdi profesionala sortu nahian.

**Eta taldearen izen xelebre hori?**

Pabelak, Brasilen dauden txabolaz jositako auzo kotxanbrosoak dira. Eta horrelakoxea zen gure lokala ere. Gainera, taldekide gehienak Trintxerpe aldekoak ginenez, horrela deitzea erabaki genuen.

**Zaila egiten al zaizue programazioa burutzea?**

Filmearen aurretik, filme labur bat botatzen dugu beti, eta normalean hauek lortzea izaten da zaila. Kasu honetan, zorte handia daukagu, Donostiako Udal Patronatuak uzten baitizkigu filme labur gehienak. Pelikulak berriz, ba, denetarik izaten da: guk telebistatik grabatutakoak, lagunek eta mobida honetan diharduen jendeak utzitakoak, eta adibidez, Donostiako Larrotxene Kultur Etxeko bideotekatik lortzen ditugunak.

**Nolakoa izan da "A Pabela" bideo-produkzio etxearen bilakaera?**

Egin genuen lehenengo gauza "Comida" izeneko bi minutuko animaziozko filme laburra izan zen. Bustinaz baliatu ginen eta Hmalfeitoh taldearekin batera burutu genuen lana. Animaziozko beste bat egiteko asmoa dugu, oraingoan plastilinaz, baina askoz ere potenteagoa. Lehenengo lan horren ondoren, saio txiki pila bat egin izan ditugu, batez ere ikus-entzunezko medioa ikasi ahal izateko. Azkeneko gauzak "Andre 666" eta "La apuesta" filme laburrak izan dira. Orain dela gutxi aurkeztu ditugun lan hauek, aurrekontu gutxikoak izan arren, planifikazio eta muntaia aldetik hobeto landuak daude.

**Lanak egiteko zein tresneriaz baliatzen zarete?**

Gure estudioa nahiko etxekoa da: Hi 8 eta Super VHS bi kamara, eta editatzeko orduan, Super VHS magnetoskopio bat. Lan prozesua, beraz, nahiko kutrea da: kamara, magnetoskopioan konektatu eta zenbait montaia egin ondoren, behin-betikoa lortzen dugu. Batzuetan Larrotxenera jo izan dugu ere filme laburren bat muntatzera, han edizio-gela potente bat dutelako eta estudioa askoz ere hobea delako. Oraintxe bertan, gure asmoa bideo-lanetarako erabiltzen den ordenadore bat erostea da.

**Nola finantziatzen duzue hau guzti ?**

Zinekluba Pasaiako Gazteria Sailarekin batera eramaten dugu. Haiek propaganda eta antolakuntzarako dirua ematen digute, eta proiektorea eta magnetoskopioa, berriz, udalarenak dira. Oraingo komeria, ordenagailua erostea da. Azpiegitura minimo bat izango duen estudio erdi profesional baten bila gabiltza, eta horretarako ari gara orain dirulaguntzak eskatzen.

Bada zorte on... Eta zuk badakizu, pelikula onak giro ezin hobean ikusi nahi batiduzu, irakur ezazu apirileko programazioa aldizkariko gure kultur agendan.

"A Pabela"-ko partaide batzuk, ordenadore berria noiz agertuko zai.



## "Espazio exterior" bidaiak

Normalean hodeiak zeruan daudenean, ez da izar asko ikusten.

Kasu horietan, hoberena, Pasaiako Eskola Nautikoak Planetarium-a ikusteko eskaintzen dituen bisita gidatu bat eskuratzea da. Horrela, pasa den martxoaren 9an, Piña Kurdin elkarteak antolaturik , hogei bat lagun bildu zen bertan, espazioko traste horiek guztiak zergatik ez diren lurrera erortzen jakiteko, edota, adituenek, -ze horrelakorik ere bazegoen-, bere izar, galaxi, konstelazio eta planeta maiteenak dantzan ikusi ahal izateko.

Bidaian parte hartu zuten beste izar batzuk.

Behin Planetarium-ean sartu eta gero, buru eta begi askotako robot antzeko batek gelako sapaia zena unibertso infinituobihurtu zuen. Eta jendearen begiak iluntasunera egokitzen zihoazen heinean, izar horiek guztiak eta Gema Ces sanpedrotar irakasle finaren esplikazioak, bertan bildutakoen entendimendua ukitu eta, bat-batean, gizabanako-espazio-denbora erlazioek beste dimentsio bat hartu zuten.

Esplikatutakoaren arabera, San Pedron bizi garenok "Esne bidea" deritzon galaxia batean bizi gara. Unibertso infinitoak milaka galaxia ditu eta hauetako bakoitzak milioika izar bere barnean. Horietako izar bat da gu egunero berotzen gaituen eguzkia, eta lurra, berriz, eguzki-sistema horretan jiraka dabilen 9 planetetatik gu bizi garen lekua.

Leku honetan, hain zuzen ere, 25 urte bete izan ditu Planetarium-ak, eskolako ikasleei eta kantauri aldeko itxasgizonei astrologi ezagupenak irakasten. Batez ere, izarren ageriko mugimenduen simulazio honi esker, izarren kokapenak ezagutzeaz gain, gizaki bakoitzak momentu batean unibertsoarekiko duen kokapen zehatza jakitea ere posible delako.

Gema Ces-en hitzetan, izar hauek, pertsonak bezelaxe, jaio eta hil egiten dira, eta beraien koloreen arabera, gazte (txuri-urdinak), heldu (hori-laranjak) edo zaharrak (gorriak) diren antzematen zaie. Aldi berean, izar hauek izar taldeetan edo konstelazioetan bildu izan ohi dira historian zehar: Orion, Gemini, Kasiopea, Leo, Hartz Nagusia edo gurdia... kasu, eta azken hau da, zirko handi honetan, gizakia iparra aurkitzen laguntzen duena: gurdiaren alde bateko Dubhe eta Merak izarren arteko distantzia espazioan barrena eta norabide berean, 5 aldiz botaz gero, iparreko izarra agertuko da edozeinen begi-bistaren aurrean.

Unibertso hau guztia begibistan eta Planetarium-ean ikusi nahi baduzue, taldea osatu eta deitu eskola nautikoko zenbaki honetara: 943.40.41.68, bidaiak merezi du eta.

**Argazkian** ditugun gazte hauek beren lehen pausoak ematen ari dira antzerkiaren munduan. Pasaia-Lezo lizeoko 14-17 urte bitarteko ikasleak ditugu, eta Martxoaren 24an udal arteoa bete zuten beraien artean moldatutako bi obrekin;"Erohilketa" eta "Izkutuka" hain zuzen ere. Freskotasuna eta lanerako gogoa nabaria zen 25 gazte inguruko bi talde hauen artean. Gure orrialde hauetatik animo!

### Martxoaren 12ko hauteskundeen emaitzak

| | |
|---|---|
| EA | 191 |
| EAJ-PNV | 260 |
| PSE-EE | 331 |
| EB | 73 |
| PP | 272 |
| BESTEAK | 30 |
| ABSTENTZIOA | 1408 |

# antxo

## TXUTXUMUTXUKA

NOR IÑAKI BECERRA NOLA BECERRA ZER KAZETARIA

**Herriko zein pertsonaiari emango zenioke Nobel saria eta zein arlotan?**
Gaur egun gure artean ez badago ere, Ignacio Aldanondori emango nioke nobel saria, medikuntza alorrean.
**Zertaz mozorrotuko zenuke Antxo?**
Fantasmaz. Antxo guztia txuriz jantziko nuke, izan ere nahiko herri fantasma dela iruditzen zait.
**Zer berri ematea gustatuko litzaizuke?**
Luzuriaga behingoz bota dutenaren berria.
**Estropadetan, zein traineruren alde egiten duzu?**
Famili ohituragatik eta betidanik erakarri nauelako, Koxtapezalea.
**Esan iezaguzu hitz hauek zer esaten dizuten:**
Gaua: magia.
Bakardadea: beharrezkoa.
Askatasuna: Ez gara oraindik horra iritsi.
Internet: Gaur egun funtsezkoa.
**Pasaia:herri bakarra edo lau herri batean.**
Duda izpirik gabe, lau herri batean.
**Zein filmetan gustatuko litzaizuke parte hartu izana?**
Ben Hur filmean.
**Eta zein liburu idatzi izana?**
"El cliente"
**Zein Musika taldetan gustatuko litzaizuke partaide izatea?**
Taldea baino, opera musikal batean, "El fantasma de la Operan" alegia.
**Zer esango zenieke antxotarrei?**
Baaa, Antxon 70. hamarkadaren bukaeran eta 80. hamarkadaren hasieran zegoen izpiritua berreskuratzeko saiakera egin dadila; orduan herri guztiak batera lan egiten zuen.

## Portugali buruzko jardunaldiak kultur etxean

Portugali buruzko jardunaldiak burutuko dira kultur etxean hil honen 10ean hasi eta 16ra bitartean. Aste guztian zehar ' Ireki Apirila: badator Askatasuna' ( 'Abrir Abril, o chegar da Liberdade') izeneko erakusketa ikusteko aukera izango dute bertara hurbiltzen direnek. Era berean, eta erakusketa osatuz, egitarau zabala antolatu da. Jardunaldiei hasiera emateko, Jon Alonsok, 'José Saramago: Lisboako setioaren historia' izenburuko hitzaldia eskainiko du, hilaren 10ean ilunaberreko 20:00etan. Apirilaren 12an, asteazkena, eta ordu berean, Gari Berasaluzek, Bego Montoriok eta Joserra Garziak 'Krabelinen herriminha' liburua aurkeztuko dute. Azkenik, ostiralean, eta gaueko 22:30etan, 'Fados', Maria Sánchezen kantaldia ikus eta entzuteko aukera.

EKILORE
ALTZARI OSAGARRIAK
ETA
DEKORAZIO-GAIAK
Hamarretxeta, 6
Tel.: 943 522655
20110 PASAI ANTXO

Muebles Altzariak RUIZTEGUI, s.a.
MOTA GUZTIETAKO ALTZARIAK
ZURE NEURRIKO FINANTZIAKETA
Nafarroa hiribidea, 15
Tfnoak.: 943 510389-510736
Faxa: 943 510494
20110 PASAI ANTXO

PITXI - TXULO
JATETXEA - TABERNA
Eguneko Menuak
eta
Karta Zerbitzua
Eskalantegi 118, Molinao auzoa
PASAI ANTXO
tlf.:943.52.07.70

YAMIO
Taberna
1934
Gure Zumardia. 27-20110-Pasaia (Gipuzkoa)



## Anbulatorioari buruzko galdetegia egin berri da

Antxoko biztanleriak anbulatorioko zerbitzuari buruz duen iritzia ezagutzeko xedearekin, Pasaiako Udalak galdeketa bat egin berri du gurean. Galdetegiaren ondorioak publikoki ezagutzera oraindik ez badira eman ere, helburua Osakidetza bere zerbitzuak hobetzeko duen beharraz ohartaraztea da. Anbulatorioak herrian eskainzen dituen zerbitzuei buruzko kexak aspaldikoak dira, osasun-zentru honek ez baititu baldintza egokiak biltzen erabiltzaile

zein bertako profesionalentzat. Horregatik, azken hilabete hauetan, Udalak zenbait hartueman izan ditu Osakidetzarekin, Antxoko anbulatorioaren egungo egoerari irtenbide bat eman nahian eta gaur egun antolatzen ez diren hainbat zerbitzu antolatzen hasteko, hala nola, larrialdi zerbitzua arratsalde eta larunbatetan, eta emaginaren zerbitzua. Eskaera hauen aurrean, Osakidetzak zerbitzu hauen prestaziorako duen espazio eta baliabide ekonomikoen falta argudiatu du. Osakidetzaren erantzuna kontuan hartuta, Udalak, herrian zerbitzu hau hobetzearen alde lanean aritu den emakume taldearekin batera, herritarren eskaerei irtenbide bat emateko aurrera atera daitezkeen ekimenak aztertu ditu, eta lehen –lehenik biztanleriaren iritzia ezagutzeari ekin diote galdetegiaren bitartez.

## Dantzatzeko irrikan

Dagoeneko hogeita sei urte pasa dira, eta halere, herenegun gertatua dirudi (ez dut bat ere exageratzen, benetan). Urte haietan barruti honetako Alkartasuna euskal dantza taldea neskamutil gazte sasoitsu, arin, gogotsu eta ilusioz beteriko talde eder batek osatzen genuen. Dantzari eta musikari gehienak antxotarrak izan ez arren, bertara etortzen ziren astean hiru egunez entsaiuak egitera.
Urte bikaina izan genuen 74a, maiatzean hasi eta urrira bitarte, asteburuoro Euskal Herriko hainbat eta hainbat herritan aurkeztu genuen gure dantza egitarau luzea, guztietan Pasaia herriaren izena aurretik generamala. Aberritik at ere aritu ginen, Frantziako Dijon hiriko nazioarteko folklore jaialdi-lehiaketan, hain zuzen ere. Hura poza , "Pays Basque"ren izenean, bigarren saria lortu genuenean! Zilarrezko domina ekarri genuen lepoan zintzilik gure txokora.
Une hartako poza, kidetasuna eta hango bizipenak berriro gogoratu ahal izan genituen joan zen irailean, hogeita bostgarren urteurrena ospatzeko, Pitxi-Txulon afari bat eginez elkartu ginenean. Sasoia eta arintasuna, agian, ez dira orain dela mende laurdenekoak, baina dantzarako gogoa eta ilusioa ordukoak adina bai, are handiagoak esango nuke. Hori horrela izanik, aspalditxo buruan zebilkigun asmoa aurrera eramateko erabakia hartu genuen: berriro ere, egun batez bederen, herriko plazan, jende aurrean dantza egitea, dantzakide ohiak egungoekin batera.
Benetan atsegina eta zoragarria izan da berriro ere elkarrekin entsaiuetan hastea, hortxe baikabiltza, azoka zaharrean, datorren San Juan bezperako ohiko aurreskuaz gain beste bi dantza berri eskaintzeko: Uztarrozeko Ttun-ttun eta polka.
Kantaren letrak dioen bezala, "ez dira betiko garai onenak", baina batzuetan uneren bat errepikatzeko aukera gure esku dago eta, zergatik ihes egiten utzi?
Lerro hauekin batera galdera pare bat luzatzeko aukera ez nuke galdu nahiko:
nola onar daiteke hogeita hamasei urte luzez lanean darrain dantza-talde honek oraindik ere entsaiuak egiteko, jantziak-eta gordetzeko eta bilerak egiteko leku egokiagorik , duinagorik ez edukitzea? Ez al du merezi? Noiz arte egoera honetan? Tamalez, bazter batetik bestera ibili behar izan du beti dantza-talde honek lokal bila, baina harrigarria bada ere, bizirik dirau eta beti Pasai Antxoren izena lau haizetara harro oihukatzen duelarik.
Bejondeizula, "Alkar" , zure bidea jarraitu ahal izateko hainbeste oztopo gainditzeagatik!

NEKANE MARITXALAR

## Martxoaren 12ko hauteskundeen emaitzak

| | |
|---|---|
| EA | 309 |
| EAJ-PNV | 431 |
| PSE-EE | 566 |
| EB | 113 |
| PP | 336 |
| BESTEAK | 20 |
| ABSTENTZIOA | 1978 |

# Kanpo portuaren egitasmoa eztabaidagai

Pasaiako Portuko Agintaritzak eta Gipuzkoako Merkataritza Ganberak kanpo portuaren eraikuntzarako bideragarritasun-txostena aurkeztu zuten iragan otsailean. Ikerketa ezagutzera eman zenetik, portua handitzeko egitasmo honek zeresan ugari sortu ditu pasaitarren artean. Planaren nondik norakoak eta honek sortu dituen erreakzioak bildu ditugu erreportajean.

TESTUA OLATZ MITXELENA ARGAZKIAK LANDER GARRO, JON VICENTE, IÑAKI

Merkataritza Ganberak, Diputazioak, Portuko Agintaritzak, Asecoguik eta Guitransek eskatutako azterlanaren arabera, Jaizkibelgo Asabaratza kala litzateke portua kanpoaldera zabaltzeko lekurik aproposena. Hau da, Jaikibelgo hegian, Mitxitxola eta Arando-Aunoi arteko lur zatia.

Ikerlanaren arabera, Asabaratzan, 1.040 eta 2.300 metroko bi dike eta 850 metroko kontradikea eraikiko lirateke, 100 eta 150 tonako hormigoizko harri handien bitartez. Era berean, 1.320.000 metro karratuko azalera aurreikusten da txatarra, ikatza, pentsuak eta zerealak , eta petrolio-produktuak deskargatzeko.

Trenbide zein errepiderako sarbideak, Lezotik Asabaratzaraino eraikiko luketen tunel baten bidez gauzatuko lirateke, Jaizkibel alderik alde zeharkatuz.

Lan hauek guztiak aurrera ateratzeko, orotara, 64.000 milioi pezeta inbertitu beharko lirateke.

Ikerketaren arabera, portu berrian, egun, portuan sartu ezin diren itsasontziak sartuko lirateke. Izan ere, kairako sarreraren ezaugarriak direla eta, gehienez, 180 metro eslora duten itsasontziak sar daitezke gaur egun. Portu berriak, aldiz, 270 metro eslora, eta 15 metro sakonera duten itsasontziak ere onartuko lituzke. Hori dela eta, merkantzia garraioa gehitzea espero da.

Kanpo portuaren aurkako taldea sortzeko lehenengo batzarra.

### HAINBAT JARRERA

Jose Ignacio Espelek, Portuko Agintaritzako lehendakariak, kanpo portuak Pasaia zein inguruko herrientzat ekarriko lituzkeen abantailak azpimarratzen ditu. "Pasaiako portua udalerriz inguratuta dago. Merkantzien garraioak beti sortzen ditu hainbat eragozpen, beraz, hori guztia kanpora ateraz gero, espazio zabalak irabaziko lirateke badia bere onera ekartzeko, eta pentsa daiteke barrualdean gauzatu daitezkeen egitasmoetan; esate baterako, kirol-portua, arrantza-instalazioen zabaltzea, erabilpen ludikorako guneak... Bizi- kalitatearen ikuspuntutik, aldaketa erradikala suposatuko luke barruti guztientzat".

Espelek zioenez "portuak kanpora eramatea, joera orokorra da". Bilbo, Bartzelona, Alacant, Malaga edo Roterdamgo kasuak aipatzen ditu adibidetzat. " Lehen portuak estuarioen barnean eraikitzen ziren. Baina edozein lekutan egiteko gaitasun teknikoa lortu denean, hiriek lehen portuek hartzen zituzten espazioak eskatu, eta portuak gutxinaka kanporantz doaz".

> **«Bizi-kalitatearen ikuspuntutik, aldaketa erradikala suposatuko luke barruti guztientzat»**

Abantaila ekonomikoekiko ere baikor azaltzen da Espel. " Merkantzien garraioak gora eginez gero, lanpostuak ere gehituko dira. Hori argi dago". Hala ere, aurkeztutako azterlanean bideragarritasun teknikoaz hitz egiten zenez soilik,

Pasaiako portuko bokalearen irudia.

orain, abantaila sozial eta ekonomikoak kuantifikatzeari ekingo diote agindutako beste ikerlan baten bitartez.

Lan honek izango duen ingurune-inpaktuaz Espelek dio: " mendiaren egitura zertxobait aldatuko litzateke, baina nire ustez, etekinak askoz handiagoak lirateke".

Esan behar da, proiektu honek izango luken ingurune-inpaktuan oinarrituta, 64 bizilagunek Pasaiako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Naturgune departamentua eta Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Kontseilaritzan, salaketa jarri dutela, hauen ustez " Jaizkibel mendiari orain arte onartu zaizkion balio botaniko, faunistiko, geologiko, paisajistiko, hidrologiko eta arkeologikoen suntsipena ekarriko luke".

Era berean, hainbat lagun kanpo portuaren aurkako talde bat osatzeari ekin diote. Taldearen sorrerarako lehendabiziko bilkura, martxoaren 18an burutu zen Donibanen, eta bertan 50 pertsona inguru bildu ziren. Batzarrean, informazioa eta iritziak elkar trukatu ziren, eta hemendik aurrera eskualdeko herrietan eztabaidak eragin eta hainbat gizarte taldeekin biltzeko konpromisoa hartu zuten. Kanpo portuaren aurkako taldearen partaideen esanetan " hemen, Itoitzen bezala, interes ekonomikoak babes eta ordenazio planak aldatzeko gai dira". "Jakin ahal izan da portu berriaren bultzatzaileak Eusko Jaurlaritzara zuzendu direla Jaizkibelgo Ordenazio eta Babes- Plana aldatzeko xedearekin, Babes Zorrotz Berezia kendu eta bertan Super Portua egin ahal izateko".

**«Jaizkibel mendiari orain arte onartu zaizkion balio botaniko, faunistiko, geologiko, paisajistiko, hidrologiko eta arkeologikoen suntsipena ekarriko luke»**

Proiektu honen atzetik dauden interesekin eta Pasaia-Irun arteko korredorean ezarri nahi diren garraio-azpiegitura berriekin lotura ere duela aipatzen dute, informazioa ezkutatzen ari direla salatuz. "Portu berriaren egitasmoan errepide eta trenarekin loturak aurreikusten badira ere, AHTren konexioarekin eta A-8rekin izango lukeen lo-



turaz ez dute ezertxo ere esan". Era berean, kanpo portuaren aurkako taldekoek proiektuaren bultzaitzaileek erabilitako hainbat argudio gezurtatu zituzten esanez " egungo kaian gune batzuk libratuko balira, ez liratekeela izango erabilpen sozialetarako eta inguruko herrietarako, negozio terziarioak bultzatzeko baizik". Bestalde, ekonomiaren gorakada eta lanpostuen sorrera batere sinesgarria ez dela salatzen dute. " Portuak diru asko mugitzen badu ere, herrien ekonomian ez du eragin handirik".

Pasaiako alkatea, Juan Carlos Alduntzinen ustez, kanpo portuan pentsatzen hasi baino lehenago, hausnarketa beharrezkoa da. "Egin beharreko lehendabiziko gauza da hausnartzea portuak nora joan nahi duen eta zehaztea zer estrategia eraman nahi dituen aurrera, ikusteko orain daukagun portua noraino iritsi daitekeen eta nola ordenatzen dugun; portuaren jarduera horietarako lur gehiago behar den ikusi eta aztertu ea eskualdean lur horiek eskaintzeko aukerak dauden. Nik uste dut lan hori egin gabe dagoela".

Bestetik, Euskal Herriko azpiegitura portuarioak bere osotasunean aztertzeko beharra aipatzen du Alduntzinek. "Daukagun potentzialtasunarekin noraino iritsi nahi dugun hausnartu eta gero, ikusten bada azpiegitura portuarioak txikiak gera daitezkela, ikusiko da non handitu eta nola osatu portu horiek ". "Hori definitzeko, nik uste, Eusko Jaurlaritzak paper garrantzitsu bat hartu behar du".

**Pasaiako alkatea, Juan Carlos Alduntzinen arabera, kanpo portuan pentsatzen hasi baino lehenago hausnarketa beharrezkoa da.**

Alduntzinek dioenez, planteatzen den finantziazioak, nahiz pribatu nahiz publikoa izan, errentagarria izan behar du, eta amortizazio-epe batekin. "Inbertsio publikoak beste izaera bat izan behar du, baina ez du zergatik doako inbertsio bat izan ". Alkatearen iritziz, bestelako faktoreen artean aztertu behar da zer ekonomia handiketa suposatzen duen eta ea enplegu sustapena suposatzen duen.

Kanpo portuak izango duen ingurune-inpaktuaz dio, itsaslabarrak ia guztiz desagertuko liratekela eta Jaizkibelek badituela bere balore ekologiko eta paisajistiko inportanteak orain baztertu ezin ditzazkegunak.

Aldeko nahiz kontrako, agerian da, portua zabaltzeko egin den ikerlan honek herritaren interesa piztu duela. Hala ere, oraindik goizegi da epeetaz aritzeko. Eskuartean, portua kanpoaldean zabaltzeko bideragarritasun- txostena, eta aurrerantzean zeresan, ika-mika eta informazio ugari sorraraziko duen gaia. Horien guztien jarraipena izango duzu Brankan.

Asabaratzako labarrak.

Gaur egungo portuaren ikuspegia.

Pasaiako badiarako sarrera Asabaratzatik ikusia.

# Zein asmo duzu Aste Santurako?

**1 Garikoitz Bengoa.**
**23 urte. Langabetua**

Pirinioetara joango naiz. Mendian ibiltzera, eta oraindik elurra badago, eskiatzera.

**2 Aurkene Isasi.**
**27 urte. Euskarako irakaslea.**

Nire asmoa egun batzuk kanpora joatea da, baina oraindik ez dakit oso ondo ez nora ez zeinekin joango naizen. Asmoen artean bat izan daiteke mendira joatea, Pikoetara edo, bestela Mediterraneo aldera, hondartzara eguzkia hartzera.

**3 Patxi Zarautz.**
**41 urte. Udaleko langilea.**

Oraindik ez dut pentsatu ere egin. Normalean hemen inguruan, eta jendea ebitatu. Jende multzoak ebitatu, eta senderismoa egin. Eta orain udaberriko xixa edo perretxikoa balego, horiek bilatzera joan.

**4 Cristina Balado.**
**31 urte. Langabetua**

Ahal baldin badut, hemendik hurbil joango naiz, Nafarroa aldera, Lizarraldeko Allo herrira hain zuzen ere, normalean egiten dudan bezala. Aldatzea gustatuko litzaidake, baina, badakizu, gizartemota honetan dirurik ez edukitzea...

**5 Ramon Illarregi.**
**35 urte. Langilea**

Egia esan, ez dut plan berezirik; ziurrenik, mendira joango naiz, nire helburua lasai egotea baita. Normalean kanpora joaten naiz, baina dirua dela eta, aurten ezin egin. Ea hurrengoan posible den...

**6 Luis Labaka.**
**70 urte. Jubilatua**

Aste Santurako? Bueno. Ni etxean lasai; trankil ederrean; hemen baino hobeto inon ez.

**7 Amaia Jauregi.**
**Irakaslea. 31 urte.**

Eguraldiaren arabera, kanpinez joango gara Landetara familia osoa.

**8 Lourdes Gonzalez.**
**37 urte. Administrari Laguntzailea**

Nik uste dut Pirinio aldera joango garela (Guara herrira) kanpinean familiarekin. Gizonek eskalatu egingo dute eta guk umeekin paseatu eta eguzki pixka bat hartu.

**9 Mertxe Fernandez.**
**51 urte. Etxekoandrea.**

Asteazkenean, Buenabentura sagardotegira joan; ostiralean Hondarribiko elkarte batera bazkaltzera; norbait hemen gelditu behar da eta! Igandean, baserriren batera bazkaltzera. Hemen inguruetan, baina denbora ongi aprobetxatuz.

**10 Juan Etxezarreta.**
**34 urte. Mekanikoa.**

Momentuz, ez dugu ezer pentsatua. Azken aldi honetan Landetara joan izan gara, erlaxatzeko helburuarekin; han kanpin batera joan eta roulotte bat alokatzen dugu. Beraz, ikusiko dugu.

**11 Txetxo Gonzalez.**
**43 urte. Filosofoa eta Fanfarreko kidea.**

Lan egiteko aprobetxatuko dut. Klaserik ez dagoenez, entsaioak goiz eta arratsaldez egingo ditugu. Fanfarrearentzat hau beti izan da lanerako garaia, lehen ere show-a prestatzeko erabiltzen genuen denboraldi hau.

**12 Sabino Mujika.**
**34 urte. Delineantea.**

Alikanten eguzkia hartu. Lasai lasai pasa bost egunak.

kirolak

Apirila eta maiatzean egin beharrekoak:

- Apirilak 9: Toloño (1.263). Araba.
- Maiatzak 7: Murumendi (859). Gipuzkoa.
- Maiatzak 28: Yoar (1.418). Nafarroa.

Zure izena eman nahi izanez gero, Euskadi Etorbideko 7. Zenbakian dagoen Sonesa Kirolak dendara joan zaitez, edota dei ezazu 943-39-07-21 telefonora. Anima zaitez!

## Donibaneko zikloturistak

S.C.R.D. Donibane zikloturismo taldeak apirilean dituen irteerak honako hauek dira.:

- Apirilak 2: Zarautz ( 76 km.)
- Apirilak 9: Col St.Ignaze (78 km.)
- Apirilak 16: Elkano ( 84 km.)
- Apirilak 23: Alegia ( 80 km.)
- Apirilak 30: Etxalar ( 74 km.)

Irteera guztiak Donibaneko Meipi auzotik aterako dira goizeko 8:30etan.

## Trintxer mendi elkartearen irteeren egutegia

Trintxer Mendi-Taldeak (Euskadi Etorbidea, 29 bis, Trintxerpe; tel. 943-39-22-21) aurtengo egutegiari urtarrilaren 16an eman zion hasiera, 1.336 metroko Bizkaiko Zalama mendia igo zuelarik. Hauek izan dira orain arte egindako beste gailurrak:

- Otsailak 6:
Tologorri (1.068) eta Eskutxi (1.180). Bizkaia
- Otsailak 27:
Izarraitz (1.032). Gipuzkoa.
- Martxoak 19:
Batxikabo (1.199) Araba.

Ikusten denez, ez dira, ez, makalak mendizale hauek beren buruari jartzen dizkioten helburuak. Jarraian dituzten mendiak, neurri beretsukoak dira:

## Itsas mendi k.k.e. ( mendi taldea )

Apiril honetan Itsas Mendi mendi-taldeak, Nafarroa eta Zuberoa aldetik paseo bat proposatzen digu.
Hain zuzen, Ori eta Okabe mendiak ibilbide batean lotzea. Larraueko portutik Orira igo eta hortik Okabeko tontorrera, bertako cromlechak ikusi ahal izango dira; eta ondoren, autobusa hartuta, Oltzarteko zubi ikusgarrirantz .
Interesaturik bazaudete, adi egon eguna eta ordua zehazten duten kartelei.

## Mendi-irteera baterako proposamena: Iparla (1044 m.)

Errobi ibaian gora, Baiona eta Donibane Garazi artean, Bidarrai (Nafarroa Behera) herritik abiatuko gara; eliza da gure irteera-puntua. Igotzen hasi baino lehen, herriko trinkete zaharra ikusteko parada hartuko dugu. Auñamendi aterpetik ezkerretara doan bidea hartu eta Urdaborda baserria pasata, marka txurigorriek GR-10) tontorreraino lagunduko gaituzte.
Bidea aldapatsua dela eta, nekeak ez jotzeko, pausua moldatu beharra dago. Ur dezente eraman beharrekoa, 2 litro bakoitzak, gutxi gorabehera, iturririk ez baitago bide osoan zehar; ezta itzala emango digun zuhaitzik ere. Markak, eta bide osoan ertzetik joateak, trabatzea oso zaila egiten du.
Bi orduren bueltan gailurrera iritsiko gara. Begibistan dugun panorama izugarri ederra da, mendiz inguratuta baitkaude: Artzamendi, Larun, Gorramendi, Saioa, Autza, Ori... Putreen konpainiak, gainera, xarma berezia ematen dio mendi honi .

PATXI PORTA ETA IDOIA VICENTE

## Alberto Martinezen istripua

Alberto Martinez Euskaltel-Euskadi taldeko txirrindulari antxotarrak istripu larria izan zuen Frantziako errepideetan izandako "Criterium Internacional" proban.
Erorketaren ondorioz, 50 puntu eman behar izan dizkiote aho inguruan. Istripu honek Euskal Herriko itzulian parte hartzea eragotziko dio Albertori.

# Pasaiako sarraskiaren 16. urteurrena



Horrela gelditu zen KAA-ko kideek erabili zuten zodiac-a

**1984ko martxoaren 22an, gaueko hamar t' erdiak aldean, gure herriko portuan zehar barreiaturik zeuden ezohiko fokoek badiaren iluntasuna apurtu zuten. Batbatean metraileta tiroandanek gau hartako lasaitasuna eta isiltasuna eten zituzten. Eta minutu gutxiren buruan, Komando Autonomo Antikapitalistetako lau kideen gorpuak agertu ziren Donibane aldeko arroketan, espainiar Segurtasun Indarrek jaurti tiroen ondorioz.**

Pasaiako sarraskia edo segada gisa ezagutu operazio hau, ordea, egun batzuk lehenago hasi zen Rosa Jimeno gazte oriotarraren atxiloketarekin. Poliziak ez zuen atxiloketaren berri eman. Eta torturatua eta pistola lokian jarrita, Dionisio Aizpuru errefuxiatuarekin Pasaian topo egiteko modua aurki zezan behartu zuten, beti ere bizirik harrapatuko zituztela zin egin ondoren.

Hala, martxoaren 22 hartan Pasaiako badia goardia zibilez josi eta Aizpuruari esandako lekuan lotu zuten Rosa Jimeno. Gaueko hamar t`erditan Ipar Euskal Herritik zetorren zodiac bat portuan sartzen hasi zen. Txalupan bost pertsona zihoazen, ezer arrarorik sumatu ez zutenak. Halako batean, ordea, "¡Alto, Policía!" oihua. Tiro solte bat segidan, eta berehala tiroketa hotsa. Komando Autonomo Antikapitalistak taldeko Pedro Isart ("Pelitxo") eta Jose Mari Izura ("Pelu") momentuan hil ziren. Koldo Merino, Dionisio Aizpuru ("Kurro") eta Rafa Delas ("Txapas"), aldiz, uretan murgildu ziren supituan, badia osoa argitzen zuten bitartean.

Guardia zibilez bete itsasontzi bi euren bila hasi ziren arroken artean. Topatu zituztenean, ez zeramaten armarik. Hiru guardia zibil "Kurro" eta "Txapas"engana hurbildu ziren. Eta, azken hauek hitz erdirik egin edo behatz erdirik mugitu ez bazuten ere, metro bateko tartean jarri eta tiro egin zieten biei.

Bien bitartean, Koldo Merino taldeko bosgarren kidea atxilotu egin zuten. Merinok hogei egun besterik ez zeramatzan erbesteraturik eta, ildo horretan, guardia zibilek KAA taldeko azpiegituraren zein etxebizitzen inguruko informaziorik izango zuela suposatu zuten. Halaber, hilabete eskas lehenago Enrique Casas PSOEko buruzagiaren hilketan parte hartu zuelakoan utzi zuten bizirik kide hau. Hain zuzen ere, iritzi publikoaren aurrean, ustez Casasen heriotzan parte hartu zuen kideetariko bat atxilotzea lortu zutela zabaltzeko asmoz.

Era berean, beste lau kideak tiroketa baten ondorioz hil zirenaren bertsioa eman zuten. Zodiac-a eta hildakoen gorpuak, baina, tiroz josirik aurkitu zituzten. Aizpuruk eta Isartek, esaterako, 36 eta 14 zulo zituzten gorputzean, hurrenez hurren.

Gertaera hauek protesta ekintza ugari eragin zituen gurean zein Euskal Herri osoan. Hamasei urte beranduago -ordutik hona urtez urte egin bezala-, oraindik ere hildakoen omenezko ekitaldiak egin dira. Hamasei urte beranduago, oraindik ere Pasaiako sarraskiaren hilketen ardura argitu ez den bezala.

IBAN IZA

# Gure herriko hizkera liburu bilakaturik

Ortzuri , Joxe Luix eta Mikel , liburuaren egileak.

**Pasa den hilaren 15ean, Ortzuri Olaetxea pasaiatarrak, Mikel Lersundi errenteriarrak eta Joxe Luix Agirretxe lezoarrak, gure herriko euskara aztergai duen 'Pasaiako Hizkera' liburua aurkeztu zuten Victor Hugoren Etxean. Bertaratutako jende mordoak agerian utzi zuen gai honen inguruan zegoen jakinmin eta interesa, eta hizpide izan ziren kontu guztiak arreta handiz jarraitu ziren, solasaldi giroa sortuz azkenean. Beste hainbat herritan egin diren lanei segida emanez, Pasaiako ahozko moldeek ere topatu dute lekua paperean, eta hau benetan pozgarria da, euskarak, hemendik aurrera, kontuan hartu beharreko euskarri bat gehiago duelako baturanzko bidean. Aurkezpenaren amaieran, lanaren egileak harrapatu eta beraiekin aritu ginen lanari buruz kontu kontari.**

TESTUA IZASKUN ALDEZABAL ARGAZKIAK JON VICENTE



**Zenbat denbora eman duzue lanean?**
Bi urte. Beka 10 hilabetekoa zen, eta, seguruenik lana epe horretan egiterik ere izango zen, baina ezinbestean eskasagoa, azalekoagoa izango litzateke. Horretaz gainera, jendearen menpe ere egon beharra dago, batez ere elkarrizketak egiteko, eta horrek guztiak epeak gehiegi ez estutzera eraman gintuen.

**Zein da horrelako lanetan jarraitzen den prozedura edo metodologia?**
Lehendabizi, ezaugarri jakin batzuk dituen jendeari elkarrizketa egiten zaio. Ondoren, elkarrizketa horiek transkribatu egiten dira, eta datu horiek oinarri harturik, hizkeraren ezaugarriak ateratzen dira. Azkenik, ezaugarri horiek modu txukun batean ordenatzen dira.

**Pasaia bat izanik ere, barruti desberdinak izateak ba al du islarik euskaran?**
Ez. Hasieran halaxe izango zela uste genuen, eta lana ere barrutika antolatzea pentsatu genuen. Baina, gerora, ikusi genuen Pasaian berezko hizkera bakarra zegoela, San Juan eta San Pedrokoa, hain zuzen. Badira desberdintasun batzuk, aditz mailan batez ere, baina oso gutxi.

**Eta Antxoko hizkera, orduan, non geratzen da?**
Antxoren kasua arras desberdina da. Barruti honek 100 urte pasatxo baino ez ditu, eta hortik hasita, beharrezkotzat jotzen genituen ezaugarriko hiztunik ere ez dugu topatu; eta topatu ditugunek nahasmena ageri dute euskalki mailan. Antxo, beraz, aparteko atal batean landu dugu, geuk berezkotzat jo dugun Pasaiako hizkeratik kanpo utziaz.

**Esango al zenigukete zeintzuk diren gure herriko berezitasunik aipagarrienak?**

***Izurdeak hori zer egiten du, berez?***
*Bai...beres...bai,bai. Beak ditu jateko e!, arrapatzeko, segitzen ta geo arraya iteu, biltzeuenian ba orduan jaten gustoko otea eta eoten da oso polit eoten da, kolakin, ola iteute isatzakin, joka ta arraya eoten da geldi geldi eta potakarra ori berris, ba...oi juaten san ola salto iteu, asko salto iteu eta juatea ola zissss! Saltoka juatea ta atzetik deika ta geo bestiak sea iteyotenian ba... pillatzeutenian ba orduan... Oso arrantza polita sian oyek, oan estao e! Olakoik e! Estago... oan esta, ya bukatu sian, bukatu sian oyek...Oango gastiak estute ori isautuko. Oso arrantza polita sian oyek.*

Xipriano Manzisidorrekin solasean.

Asko dira. Horietako batzuk, alboko herrietan ere topatzen dira, hala nola, "s" eta "z"ren artean bereizketarik ez egitea, edota adizkietan pertsonaren marka errepikatzea, "genitugun", "zenituzun" eta horrelakoak kasu; azken fenomeno hau, hala ere, Pasaian barra-barra entzuten da. Beste ezaugarri batzuk,

majestik
Oarso 13, behea esk. Pasai Antxo
Tel. 943 34 00 64 Fax 943 52 97 83
Irekita: 10:00/13:00 eta 16:00/20:00
Urtarrilak 22tik aurrera Larunbat arratsaldez irekita
WEB:http://www.iturgaiz.com
E-mail:majestik@iturgaiz.com

*Pasai Antxoko dendan, nazioko zein inportazioko irudimenezko oihalen erakusketa handia eskaintzen dugu; eta Lezoko industrialdeko biltegian, eskaparateen apainketarako edozein motatako figurak dituzu alokatzeko. Gainera, mota guztietako karrozak 2000m2-ko erakusketan.*

ordea, bitxi samarrak dira, beti ere alboko herrietan agertzen ez direla kontuan hartzen badugu; esaterako, "t"ren palatalizaziorik eza, alegia, "ditut" esatea "dittut" esan beharrean, edota pertsona plurala denean "z" bat eranstea adizkian, "gaudez", "zeazte" kasu; beste gauza bitxi bat "ekarri" erroko formak edutezko adieran erabiltzea da, hau da, "baserri bat zekarren" esatea "baserri bat zeukan" esateko. Bestetik, 'nondik' kasua erabiltzerakoan, erredundantzia erakusten dute, alegia, "menditik" formaz gain, "menditikan" eta "menditikanen" bezalako formak oso arruntak dira. Eta, kasuekin jarraituz, 'noren' kasua, singularra denean, plural formaz adierazi ohi dute, hau da, "elizaren" ordez "elizen" esaten dute.

**Horiek zein euskalkitara hurbiltzen gaituzte?**

Ezaugarri gehienek gipuzkerara, baina goi-nafarrerakoak ere badira, eta, agian, pentsa zitekeena baino gehiago, lexikoan batez ere; esaterako, "iruzkiya" "eguzkia" esateko, edota "itxia" "etxea" esateko.

**Handia al da gaztelaraen eragina?**

Ez da beste herrietan baino handiagoa. Antxon bai, baina esan dugun bezala, hau berezia da gure aztergaian.

**Zein etorkizun ikusten diozue Pasaiako hizkerari?**

Nahiko kaskarra, ez bada zer edo zer egiten, behintzat. Kasu batzuetan hizkera gorde da belaunaldiz belaunaldi, batez ere bertako gurasoak dituztenek, 30 urte ingurukoek. Hortik beherakoak, berezkotik aldenduz doaz gutxinaka, nahiz eta oraindik badiren "txorua seas!" esaten duten haurrak...



'Pasaiako Hizkera' liburuaren azala.

**Zein izan da lanik nekezena azterketan zehar?**

Dena ordenatu eta sistematizatu behar izatea; asumitu beharra ezin dela sistematizazio osora iritsi. Gehiena osatzea lortu dugu, baina hutsuneak ere badira, ez baikenuen berreraikuntzetan sartu nahi. Egoera horrek nolabaiteko estresa sorrarazten du.

**Eta, aldiz, zer izan duzue gogokoen?**

Dudarik gabe, elkarrizketak. Oso gustura ibili gara, sukalde-zokoraino sartu eta solasean. Hiztunek borondate eta apaltasun izugarria erakutsi digute. Batzuetan, grabagailua itzali eta hizketan jarraitzen genuen; euren eguneroko bizitzaren lekuko izan gara askotan, tertulietan-eta parte hartuz. Oso polita.

**Ba al duzue gertaera bitxirik gogoan?**

Izan dira, bai. Baina, horrela, esateko... Hiztun bati, esaterako, kaletik deitu behar zitzaion etxera.

**Zer edo zerk harritu al zaituztete bereziki?**

Gauza askok. Askotan klitxeak izaten ditugu buruan, eta horietaz gain ezer gutxi dagoela uste izaten duzu. Baina ez da hala; eraginak badira, lapurterarenak, nafarrerarenak, gaskoierarenak... Gu, behintzat, harritu egin gaitu, eta deskubrimendu bat izan da.

**Aipatu duzuenez, badira hainbat gai azterketa sakonagoa merezi dutenak**

Bai, hala da. Guk ezerezetik oinarri bat jarri dugu. Gero, markatutako ildoetatik abiatuz, lan sakonak egin daitezke; hala nola, gaskoieraren eragina; azentua, aurrekoarekin lotuta egon daitekeena gainera; gazteagoen euskararen azterketa, modu ez hain sinkronikoan aztertua beharbada; hemengo euskara estandarizatu bat proposatzeko oinarriak, hedabideetan erabili ahal izateko, Branka aldizkarian, esaterako...

Liburuaren aurkezpenean ateratako argazkia.

**Bada, horra hor gure elkarrizketakideen iradokizun eta gonbitea. Gure aldetik, zorionik beroenak halako lan mardula burutzeagatik!**



# JOTA

APIRILA 2000

Hona hemen apirilerako kultur agenda. Eskaintza zabala duzu eskuragarri hilabate guztian zehar. Gogoratu zure elkarte edo lan-taldeko ekintzek ere leku bat izan dezaketela hemen. Animatu eta bidali informazioa!

**IKASTAROA**
**Mintza-ikastaroa Trintxerpeko AEK-n.** apiriletik ekainera, astearte eta ostegunetan, arratsaldeko 20:00etatik 22:00etara. Antolatzailea: Trintxerpeko AEK. Euskadi Etorbidea, 29, 3-4.Ttf: (943)395812

**MUSIKA**
**Trintxerpeko Abesbatza eta Ilunbe Akordeoi-orkestra.** Apirilaren 14an Pasai Antxoko kultur etxean.

**ERAKUSKETAK**
**Pintura-lehiaketan aurkeztutako lanak ikusgai.** Trintxer Kulturala Elkarteak antolatuta, hilaren 8tik 16ra bitartean Trintxerpeko alkateordetzan.

**GAUEKO ISILTASUNAREN IZAKI LILURAGARIAK**
**Apirilean zehar, Begoña Valdizanen argazkiak** ikusgai pasai antxoko Kamio tabernan.

**MENDIKO ASTEA**
**Maiatzaren 2tik 7ra bitartean, Jaizkibel mendi taldearen eskutik mendiko astea.** Bestalde, aste Santurako Alacant-era irteera, hilaren 20tik 24ra bitartean.

**MENDI MARTXA**
**AHTren aurkako asanblada eta Autobiaren aurkako herri ekimenak antolatuta, proiektu txikitzaileak gelditzearen aldeko mendi martxa, apirilaren 16an.** Hitzordua Landetxako topo geltokian goizeko 10:00etan. Ibilbidea honako hau izango da: Landetxa (Irun)-Gaintxurizketa-Misintxola (Jaizkibel)-Donibane.

**PORTUGALI BURUZKO JARDUNALDIAK**
**''Ireki Apirila: badator Askatasuna' izenburupean, erakusketa Pasai Antxoko kultur etxean, apirilaren 10tik 16ra bitartean.** Apirilaren 10ean, Jon Alonsok 'José Saramago: Lisboako setioaren historia' izenburuko hitzaldia eskainiko du bertan ilunabarreko 20:00etan, eta apirilaren 12an, Gari Berasaluzek, Bego Montoriok eta Joserra Garziak 'Krabelinen herriminha' liburua aurkeztuko dute ordu berean. Jardunaldiei amaiera emateko Maria Sánchez-en musika-emanaldia ikusi eta entzuteko aukera, apirilaren 14an, gaueko 22:30etan, kultur etxean bertan.

**ZINE-MARATOIA**
**'A pabela Productions' -ek antolatuta, Hong-Kong-i buruzko zine-maratoia,** apirilaren 28an, ostirala, gaueko 22:00etan. 'Cine en Hong-Kong' izenburuko dokumentala eta jarraian 'Erase una vez en China' eta 'El furor del dragón' filmak.

**ZINEA**
**'A Pabela Productions' taldearen apirileko programazioa, igandero San Pedroko Udal Aretoan, arratsaldeko 18:00etan.**
Apirilaren 9an:
'Opus 66' eta 'Estoy que ardo' filme laburrak eta Alenjadro Amenabarren 'Abre los ojos' filme luzea.
Apirilaren 16an:
'Suegros' filme laburra eta Jon Coen-en 'El gran Lebowsky' filmea.
Apirilaren 30ean:
'Geometria' filme laburra eta Buñuelen 'El gran calavera'.

**KONTZERTUAK**
**Moganbo aretoan aurki eskainiko diren kontzertuak:** H-Strythnine, Sabor Ácido, Kaña bi Kaña, Barley Juice, Sutura, Nuevo Catecismo Católico, Safety Pins...

**ASTE SANTUA SAN PEDRON**
**Apirilak 20, ostegun santua:**
17:00 (haurrak) eta
19:00 Pedro Deun Apostolua
20:00 Jasokundeko Andra Maria
**Apirilak 21, ostiral santua:**
8:00 (Gurutz bidea) eta 19:00 Pedro Deun Apostolua
8:00(Gurutz bidea) eta 20:00 jasokundeko Andra Maria
**Apirilak 22:**
20:30 Pedro Deun Apostolua
19:00 Jasokundeko Andra Maria
**Apirilak 23:**
11:30 Pedro Deun Apostolua
12:30 Jasokundeko Andra Maria

# zuk zeuk!

**LIBURUA**
**"CONNEMARA GURE BIHOTZEAN"**
Julen Gabiria

Bizirik dagoen lagun bat, Txema; hilik dagoen lagun bat, Eider; klabe ezkutuz beteriko ordenagailu-diskete bat, egunkaria; amestutako lurralde berde bat, Irlanda. Honako hauek dira Julen Gabiriak bere lehenengo eleberria eraikitzeko erabili dituen zutabeak. Zutabe sendoak zalantzarik gabe... baina, eta oinarrian zer? Oinarrian maitasuna, engainua eta norberaren ezagutzaren bilaketa. Honen bila joan zen Eider Irlandara eta bertan bere burua ezezik, beste hainbat gauza ere ezagutu zituen. Gehiago jakin nahi baduzue, Txemak egin zuena egin beharko duzue, alegia, Irlandara joan eta disketea irakurri. Beno, lasai, ez duzue Irlandara joan beharko, nahikoa izango da eleberri hau irakurtzea. Eta azkenik, apainketa dugu; Irlandako paisaiaren berdeaz margotuta, hainbat sexu pintzelada ere baiditu eta ustekabeko bukaera indartsu bat izateaz gain, argazki eta ipuin eder batzuk irakurri ahal lizango ditugu. Zinez diotsuet, Galdakaoko idazle gazte honek etxe polit askoa eraiki du.■

XABI ETXANIZ

**FILMEA**
**"TODO SOBRE MI MADRE"**
Pedro Almodovar




Hollywood ere bere oinetara makurtu da pelikula honekin, bere oinetara edo emakumeen oinetara esan dezakegu. Baliteke emakumeak ondoen ulertzen dituen zuzendaria izatea.

Bartzelonan kokatua egon arren, kaleetako ezaugarriak berehala bereganatzen ditu sufrimenduzko istorioak, Almodovarren ukituez melodrama eta dagoeneko oihartzun bihurturik. Banaketan, Cecilia Roth, Marisa Paredes, Rosa Maria Sarda, Candela Peña, Penelope Cruz eta Antonia San Juan izanik, argi dago emakumeen mundua ikuspuntu anitzetik agertzen digula, pertsonaia maskulinoak ere emakumeek definitzen bukatzen dutelarik. Ihesaldiak, traizioak, karitatea, amatasuna eta pasioak azaltzen dituen istorioekin, bizitza antzerkia bezala azaltzen du pertsonarteko harremanak azpimarratuz.

Era honetan, sentsibilitate femeninoarengatik duen faszinazioa, heldutasunera iritsi da pelikula honetan. Drama komedia eta komedia drama bihurtzen du uneoro, berezia egin duen umore kutsurekin.■

NAIARA MAYO

**MUSIKA**
**"SELEKTAH KOLEKTIBOA"**




"Rap egiten dugu, eta ez gara ez amerikarrak ezta madrildarrak ere": hauxe da Selektah Kolektiboaren aurkezpena. Kolektiboa zabalagoa bada ere (pertsonaz eta asmoz), taula gainean Daddy Jeff (Hendaia) eta Dz (Zizurkil) aritu dira gutxi arte, eta formato horretan ikusi ahal izan genituen Antxon bertan iazko Korrika kulturalaren ekitaldien barnean. Orain, Wanka (iruñea) gehitu zaie. Taldearen funtzionamendua oso sinplea da: Daddyk oinarriak (musika) sortzen ditu bere etxean daukan PC-arekin; horiek grabatu, eta, gero, zuzenean, oinarrien gainean hitzak rapeatu eta scratchak nahieran sartzen dituzte. Hori da dena. Harrigarria da, beraz, zein baliabide gutxi eta teknologia merkearekin lor daitekeen hain emaitza polita. Euskal Herrian hip-hop egiten duen lehen taldea da. Niri azpimarragarria iruditu zaidana, oroz gain, kanten hitzak dira: azkarrak, sakonak, zorrotzak eta beren jarrera soziopolitikoaren erakusle argiak. Bitxia da euskararekin nola jolasten duten ere.■

JOSEBA KAMIO

**Duela 30 urte inguru ateratako argazkia. Bertan, Pascual Agirre entrenatzaile dutela, Pasai Antxoko zenbait emakume azaltzen dira, urtetan zehar iraungo zuen emakumezko eskubaloi-taldearen hastapenetan. Argazkia, Biteri plazan (frontoia) aterata dago, eta atzekaldean egun desagerturik dagoen "Mari" taberna ikus daiteke ere. Hauek dira antxoko emakumezkoen eskubaloiaren aintzindariak (ezkerretik eskuinera eta goitik behera): Txokarro, Pepi Queiruga, Sasi Leizeaga, Feli Txokarro, Isabel Etxezarreta, Eli Oiarzabal, Maite Paisal(atezaina), Pascual Agirre, Koldo Mujika, Txaro Borja eta Rosa Turrillas.**



## Iraganari begirada

### GASKOIAK PASAIAN

Gaskoiak XII. mende inguruan iritsi ziren Pasaiara. Gaskoiak Pasaiara nolatan iritsi ote ziren zeharo argitu gabe dago artean, nahiz eta zenbait teoria eratu diren horri buruz, baina gauza jakina da garrantzi eta eragin handia izan zutela inguru hartan XII-XIII. mendeetan. Pasaian ez ezik Donostian eta Hondarribian ere finkatu ziren, baina San Juanen izan zuten eragin handien; izan ere, gainerako herrietan hizkuntza gaskoia galdu zelarik, bizirik iraun zuen San Juanen eta 1870ean oraindik erabiltzen zen bertan. Horren erakusgarri izan daiteke, halaber, gaur egun sanpedrotar nagusiek sanjuadarrrei buruz esaten dutena: "Hoiek gaskoiak dira". BORDAUNDI